

## KOSTU EGITURA

Gure negozioa sortzeko eta mantentzeko, beste guztiek bezala, hainbat kostu ordaintzea inplikatzeko du, eta enpresak arrakastatsua izan dadin kostu horiei aurre egiteko gaitasuna izan behar du. Negozio-eredu batzuek kostu baxuak dituztelako funtziona dezakete eta beste batzuk, berriz, dute kalitate-maila altuagatik. Gure proiektuan, azken aspektu honi erreparatuz gero, gure helburua bien arteko nahasketa egitea da. Guk, jakin badakigu hainbeste dimentsioko proiektu bat aurrera eramaterako garaian gastu asko altuak direla, baina guk horiek ahalik eta txikienak izatea nahi dugu jasagarria izan dadin gure proiektua, beti ere, kalitatean eragin gabe. Jarraian, gure enpresak izango dituen kostuak azalduko ditugu. Kostu hauek, bi multzotan sailka genitzake: finkoak eta aldagarriak.

Hasteko, enpresaren sorkuntzari buruz hitz eginez, hainbat kostu finko ordaindu beharko ditugu, hasteko, eremu handiko eraikin baten alokairua ordaindu beharko genuke. Jarraian, beharrezko materiala erosi beharko zen, adibidez, koltxonetak edo tabernan beharrezkoa izango den lanabesa. Honetaz gain, wifia eta telefonoa instalatzeko gure negozioan, telefonika enpresa bat kontratatu beharko genuke, eta argia eta urarentzat ere beste enpresa batzuekin jarri beharko ginen harremanetan. Kostu finkoekin amaitzeko, webgunearen hostinga ordaindu beharko genuen, hau da webgunea edukitzeko ordaindu beharrekoak. Kostu guzti hauek hilabetero ordaindu beharko ditugu, eta izenak ongi esaten duen bezala finkoak dira, hau da, ez dira desagertuko.

Behin kostu finkoak ordaindu eta gero, kostu aldakorrak ordaindu beharko genituzke, hauek, beharrezko kantitatea edo denboraren ondorioz garestiagoak edo merkeagoak izan daitezke. Lokalari begira, tabernako edariak eta elikagaiak erosi beharko ditugu, horretarako, taberna guztiek egiten duten bezala, enpresa bat azpi-kontratatu genuke, honen kostua kontsumitutako kantitatearen arabera aldatuko zen. Tabernan bertan salduko ditugun produktuak erosterako garaian, hilabetearen arabera erosi beharrekoen kantitatea aldatu egongo da, ondorioz, aldagarria izango da. Garbiketa produktuak eta tresnak erosi beharko ditugu ere, hauek, erabilitako kopuruaren arabera aldatuko dira, baita zenbatero garbitzen dugunaren arabera ere. Amaitzeko, propaganda egiteko inprimatuak ditugun paper guztien kostua gehitu behar dugu, hau zenbat kartel eta zenbat lekuetan ipiniko ditugun kontuan hartuz aldatuko da. Gainera, kanpainen arabera ere aldakorra izango da. Ondorioz, aurretik aipatutako kostu guzti hauek, hilabetearen arabera berdinak izango ez diren arren garrantzitsuan eta kontuan hartzekoak izango dira.

Gastu hauek ikusita laguntza gehigarri ekonomiko bat beharko dugu enpresa aurrera eramanez ahal izateko, beraz, mailegu bat eskatuko dugu. Mailegu honen bidez, hornitzaileetatik lortuko dugun diruaz gain, lehen momentutik diru-sarrerara bat izatea bermatuko digu. Mailegu hau banku-etxe batetik eskuratuko

dugu. Ondoren, lehen irabaziak eskuratzean eta proiektua finkatzean, mailegua gutxinaka ordaintzen joango gara, dena ordaindu arte.

Amaitzeko, aurretik deskribatutako kostu finko eta aldagarriek gure enpresaren jasagarritasuna baldintzatuko dute baita arrakasta ere. Beraz, kontuan hartu eta gure enpresaren planean txertatu ditugu aurreikusten ditugun gastuak balio-proposamena zehatzagoa izan dadin.